

Iraileira arte agurtzen zaituztegu

Aldizkari honekin 2009-2010 ikasturteari amaiera eman eta ongietorria egiten diogu oporraldiari, urte unibertsitarioaren itxierarekin bat eginez. Datorren irailetik aurrera hamabosteroko informazio fluxuari ekingo diogu berriro hilabete hasieran eta amaieran aldizkariak bidaliz. Uda zoriotsua pasa dezazuen opa dizuegu.



Aurten 70 kooperatiba berri eta mila lanpostu baino gehiago sortuko direla espero du Konfekoopkek

2010eko ekitaldirako itxaropenak hobeak dira 2009ko emaitzekin alderatuz, krisiaren eraginez iaz %31,72 murriztu baitzen euskal kooperatiben fakturazioa eta %51,88 esportazioak. [Informazio +](#)



Kooperatibak emakumeen jabekuntzarako aukera bezala

Euskadin ekainaren 17an ospatu zen Kooperatiben Nazioarteko Eguna enpresa eredu honek emakumeei eskaintzen dizkien abantailetan zentratu zen. Era berean, Mondragon Taldeko eta CEPESeko arduradunek parte hartu zuten eta 'interkooperazio' kontzeptuaren inguruan mintzatu ziren. [Informazio +](#)



Euskal kooperatibek Lanbiden parte hartzea aldarrikatu dute

Konfekoopkek eta Erkidek prentsaurrekoak eskaini dituzte etorkizuneko euskal enplegu zerbitzuko ordezkariak organoetatik alboratuak izan direla kritikatzeko. Entitate horretako administrazio kontseiluko kide izango lirateke Exekutiboa eta enpresa zein sindikatu elkarteak. [Informazio +](#)



Erkidek 168 lanpostu berri sortu zituen 2009an, baina %16ko beherakada izan zuen fakturazioan

Euskadiko Lan Elkarleen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioak 2009an izandako emaitzak aurkeztu ditu duela aste batzuk. Datuen arabera, lortutako fakturazioaren %58 nazioarteko eragiketen emaitzetan oinarri tzen da. Aurten ekitaldirako 1.000 lanpostu kooperatibo eta 55 konpainia berri sortzea espero du. [Informazio +](#)



Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak Gizarte Ekonomiaren lege aurreproiektua onartu eta baloratu du

Erakundeak Ministroen Kontseiluak ekainaren 11n onetsitako testuaren balorazio positiboa egin du, baina sektoreko entitateen ordezkagaitasun irizpideak ezartzearen beharra azpimarratu du, beste hainbat zehaztapenen artean. [Informazio +](#)



Eroskik 43,4 milioi euro eskuratu ditu W.P. Carey Group-ekin itxita salmenta eragiketarekin

Konpainia euskaldunak hainbat lokalen salmenta eta epe motzeko alokairua sinatu ditu W. P. Carey inbertsio taldeko sozietate batekin, 2001ean hasitako higiezin salmenta estrategiarekin jarraituz. [Informazio +](#)



Mondragon Automoción-ek auto elektriko baten prototipoa aurkeztu du

City car izeneko autoa azken urte eta erdian Korporazioak 'Mugikortasun Iraukorraren' arloan egin duen lanaren erakuslea da, eta automobilgintzaren eremuan produktu, jarduera eta negozio berriak garatzea ahalbidetuko duela adierazi dute. [Informazio +](#)



Eroskik 'CM Lideres en Excelencia' saria jaso du bere gasolina-zerbitzuguneengatik

Sariaren helburua da kontsumitzaileen eta azken bezeroen gogobetetasuna lortzen onenak diren Estatuako enpresak aintzatestea. [Informazio +](#)



'ComparTiendas' merkatu sozial alternatiboaren proiektua aurkeztu dute Bilbon



REAS Euskadik eta Gizateak antolatutako ekitaldien testuinguruan aurkeztu zen, Eutokia Gizarte Berrikuntza Gunean, moneta sozialarekin funtzionatzen duten denda-sare batean oinarritzen den proiektua. Mexikon garatzen da, eta 2005ean ipini zen martxan. [Informazio +](#)



'ICO directo' finantzazio lerro berria autonomo eta enpresa txiki eta ertaintzat

Kreditu Ofizialeko Institutuaren helburua da 200.000 euroetara irits daitezkeen zuzeneko maileguak eskaintzea inbertsioak egiteko edota enpresen likidezia beharrei erantzuteko. Honela, aurrerapausoa eman da kreditu merkatua dinamizatzeko eta enpresario txikiek maileguak eskuratzeko dituzten aukerak hobetzeko.

[Informazio +](#)



Gizarte ekonomiako enpresa berriek eraginkortasuna erakutsi dute kolektibo ahulenen laneratzean

Ekainaren 21ean egindako 'Gizarte ekintzailatza eta gizarte ekonomiako eredu berriak' izenburudun IUDESCOOP jardunaldian parte hartu zuten adituek nabarmendu egin zuten laneratze enpresek eta banka etikoak krisi garaian dakarten balio erantsia.

[Informazio +](#)

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipiniz